

## Gaur hasi dira Goi Mailako Heziketa Zikloetako eskolak ETEOn.

2008/09/15

Gaur goizean hasi dira Goi Mailako Heziketa Zikloetako eskolak ETEOn.

Administrazio eta Finantzak bigarren mailako ikasleak, lehenengo orduan jaso duten aurkezpenaren ondoren, beraien ikasturteari dagozkien klaseak jasotzen hasi dira.

Bestalde, Administrazio eta Finantzako eta Merkataritza Kudeaketa eta Marketingeko lehenengo mailako ikasleek, goizean zehar, "Harrera Plana" izan dute.

ETEOK eskeintzen dizkieten zerbitzuetaz gain (liburutegia, informatika gelak, posta elektronikoa, e.a.), ikasturtean zehar, klaseak emateko erabiliko den metodologiaren berri ere izan dute, egingo dituzten bisitak, jasoko dituzten hitzaldiak,... Irakasle eta tutoreak ezagutzeko beta ere izan dute.

